

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Administrazioko oinarrizko gaiak
MODALITATEA:	On-line
HIZKUNTZA:	Gaztelania

## CURSO AVANZADO SOBRE LA PROTECCIÓN DE DATOS

KODEA

2016-1-5-2

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 40 ordu **IKASTARORA SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

**HARTZAILEAK** Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan lan egiten duten enplegatu publikoak.

**HAUTAKETA-IRIZPIDEAK** Datuen babesean ondo jantzita dauden langileak.

**BALDINTZAK**  
-Helbide elektronikoa bakarria ikasle bakoitzeko  
-Administrazio Orokorreko ikasleentzat: korporazio-saretik kanpoko posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak

**ESKAKIZUN TEKNIKOAK**  
SOFTWAREA:  

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox 14.0.1 eta Chrome, edo berriagoak
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
- Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
- Internetarako konexioa, eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:  

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela

**TUTORETZA**  
Tutorearen egitekoak:  

- Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
  - ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
  - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	BAJEN JAKINARAZPENAK (ez dakar matrikula-kosturik)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	ONIRITZIA	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
APIRILA	apirilak 4	apirilak 29	martxoak 2	martxoak 3tik 8ra	Martxoak 8	otsailaren 29a arte

### ZER LORTU NAHI DEN

**HELBURU OROKORRAK** Herri-administrazioetan datu pertsonalak babestu beharrak jira-biran dituen gai guztiak aztertuko ditugu, eta kontuan izango da ikasleak gai horiek denak sakonago lantzea.

**GAITASUNAK**  
Ikastaroa amaitzen denerako, ikaslea gai izangoda honakoetarako:  

- Datuen babesa arauetan non-nola kokaturik dagoen jakiteko
- Datu pertsonalak bereizteko eta tratamenduentako salbuespenak bereizteko.
- Datuen babes-kontuetan, kontrol-organoak kokatzeko eta haien eskumenak kokatzeko.
- Informazio-fluxuak bideratzeko eta fluxu bakar baterako konponbide guztiak adierazteko.
- Datuak babesteko obligazio formalak zehazteko eta ebazteko.
- Datu pertsonalak darabiltzan antolakunde orotan derrigor jarri beharreko alderdi teknikoak erabiltzaile moduan errebisatzeko, lehenagotik duen mailaren arabera.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Administrazioko oinarriko gaiak
MODALITATEA:	On-line
HIZKUNTZA:	Gaztelania

## CURSO AVANZADO SOBRE LA PROTECCIÓN DE DATOS

### PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

<b>METODOLOGIA</b>	<p>Autoprestakuntzako ekintza honek bi ardatz nagusi ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntzaren oinarrian, sistema dinamikoa bat dago, ikasleek aktiboki parte har dezaten; tutoreak gidatzen du ikaslea, eta ikasleak, berriz, banakako lana eginez eta elkarlanean arituz ikasten du. Ikastaroak 6 gai ditu, autoebaluaketarako testa eta jarduera desberdinak.</p> <p>Ikasleen ikastaldia osatzeko bideak: ikastaroko dokumentaziora eta irakurtzeko esteketarako sarbidea; foroetan parte hartzea; ariketa praktikoak eta galdetegiak egitea, eta tutorearekin beti harremanetan egotea, plataformaren bidez.</p>
<b>PROGRAMA</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Sarrera. Ea zer dugun datuak babesteko arauen aldetik</li> <li>2. kontrol-organoak: Datuak Babesteko Agentziak</li> <li>3. Kontzeptuak: Datu-babesaren inguruko funtsezko definizioak.</li> <li>4. Tratamenduaren eskakizunak: fitxategi-arduradunaren eta interesatuen eskubideen eta betebeharren arteko gatazka.</li> <li>5. Lagapenak eta zehapenak: informazioaren kanpoko tratamendua eta tratamenduaren erantzukizuna.</li> <li>6. Segurtasun-neurriak: Legezko obligazioak martxan jartzeak bere baitan dituen gorabehera teknikoak.</li> </ol>
<b>EBALUAZIOA</b>	<p>Ikastaroaren helburuak betetzen direla bermatzea izango da ebaluazioaren <b>helburua</b>. Ikastaroaren ebaluaketak <b>6 ariketa praktiko</b> ditu eta test motako proba bat. Jarduera batzuk on-line egin behar dira eta beste batzuk ordenagailuan gero plataforma birtualean atxikitzeko, tutoreak zuzendu eta lanaren feedback-a bidali dezan. Halaber, edukiak ikasteko eta jarduerak egiteko gomendatutako epeak markatuko ditu.</p> <p><b>Aprobetxamendu-proba</b> 40 galdera dituen test motako online proba bat izango da eta erantzuteko 4 aukera izango ditu. Proba egiteko saiakera bakarra dago eta iraupen mugatua izango du, gehienez, 45 minutu.</p>
<b>IKASTAROAREN BALORAZIOA</b>	<p>Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio inkesta. Inkesta egitera sartzeko esteka bidaliko dugu, mezu elektronikoaren bidez.</p>
<b>ZIURTAGIRIA</b>	<p><b>Aprobetxamendu-egiaztagiria</b> lortzeko <u>bete beharreko baldintzak</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ gutxienez 3 jarduera gainditzea</li> <li>➤ Aprobetxamendu-proba gainditzea: gutxienez, 32 erantzun zuzen</li> </ul>
<b>PREZIOA</b>	<p><b>197€</b> AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)</p>
<b>OHARRAK</b>	<p><u>Laguntza</u> behar izanez gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Deitu ELZko telefono zenbakira (945016) <b>440</b></li> <li>➤ Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara</li> </ul>